

INFORMAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIA I

Ikas-maila: modalitate guztiak - Batx I

Edukien gaineko aipamena:

Eguneroko bizitzan (administrazio, hezkuntza, aisialdi...) murgilduta gauden IRAULTZA DIGITALEAN trebetasunez aritzeko erremintak eskuratzea gai ezberdinak jorratuz (mekanografia, google apps, IKT gizartean, mapa kontzeptualak eta infografiak, programazioa...).

Metodologia:

Arlo honen metodologia batez ere praktikoa izango da. Ikasleek ikasiko dute irakasleak esandakoa praktikan jartzen. Ordenagailu bakoitzean ikasle bat jarriko da eta ez badago guztientzat binaka jarriko dira, baina beti ere biek lan egin behar dute. Irakasleak hasierako azalpenekin motibatu egindo du ikaslea. Prozesuaren erdian, trikimailu ezberdinez baliatuz orientatu eta lagunduko du lana aurrera atzeratzeko eta azkenik lortutako emaitzei buruzko hausnarketa burutuko da.

Ebaluazio-irizpideak

Jarrera %10

Eguneroko lana %50

Praktikak, azterketak, lanak %40

Modalitatearekin eta geroko ikasketekin duen erlazioa edota hautazkoarekin erlazionaturiko informazio esanguratsua.

Inguru sozial eta profesionalean modu konsziente eta ziur batean murgiltzeko gaitasunak bereganatzea, izan ere, IKT-ren aplikazioen iraultzan bizi gara. Ikasgaia hau edozein ikasketekin lotuta dago.

	Bai	Ez
Ikastetxeak diseinatutako irakasgaia		X
Selektibitatean nahitaez egin beharreko irakasgaia		X
Selektibitatean, nota igotzeko, egin daitekeen irakasgaia		X

[Proiektzioa IKT I](#)

Irakasgaia kurtsatu nahi duten guztiek ezin badute egin, nortzuk egingen duten erabakitzeak irizpideak.

Ordenagailu adina ikasle matrikulatu ahalko dira.